

Ametsetan esna

Bazen behin Sakanako bailaran Iratí izeneko neska bat zeinari ametsetan, apokalipsia edo munduaren amaiera bezain larria ez den, baina, izugarri beldurtzen zuen egoera behin baino gehiagotan errepikatzen zitzaiona:

Altsasuko Urdalurgo urtegiaren presa leher zitekeen, baina, neska ez zen kezkatzen, etxean zegoen leihotik begira ura noraino iritsiko zen irudikatuz.

Beste batzuetan, ametsetan, jakin bazekien urtegia lehertzeaz zegoela. Hala ere, berak ez zuen ezer egiten, leihotik begira jarraitzen zuen, parean zegoen etxeari ura noraino helduko zitzaion edo ondoko herrietaraino iritsiko ote zen pentsatuz... (Urbasako igoeran Urdiaingo portuko beheko aldean dauden intxaurrondoak, haratago Iturmendiko Aitzara basiliza edo norabide horretarantz ere, Bakaiku edo Etxarri urgaineztatuko ote ziren.)

Behin sumatu zuen uholdea Altsasuko bere etxea harrapatuko zuela. Bera momontu horretan negutegian egongo zen, etxe ondoko negutegiaan, et aura bertara sartu ahala bere gorputza goruntz egingo zuen flotatzen...

Ez zekien orduan onik. Atera ahalko zuen...

Hartan, bat-batean iratzargailua jo egin zuen.

Iratik lasaitu ederra hatu zuen amari kontatu eta, berak, lehertuz gero, egiatan, Urdalurgo urtegiaren ura ez zela Sakanako herrietaraino ailegatuko esan zionean.

Itoiz 